

**Diagnostiko orokorra**

Arrantza jarduera tradizionala da Euskadin, eta garrantzi handikoa gizarte eta ekonomia arloan, kostako udalerrietan batez ere. Harrapaketa hutsak EAEko BPGren eta enpleguaren %1 osatzen du, baina arrantzak garrantzi sozioekonomiko handiagoa du datu horrek adierazten duena baino. Batetik, itsasoko lanpostu bakoitzeko, lehorreko 3,5 lanpostu sortzen dira Euskadin, eraldaketa-sektorean, eta, gainera, are lanpostu gehiago sortzen dira arrantza arloko banaketa-, ikerkuntza- eta aholkularitza-sektoreetan. Bestetik, arrantza lurralde jakin batzuetan metatzen dela-eta, eskualde jakin batzuk arrantzaren mendean bizi dira neurri handi batean; halakoetan, harrapaketak BPGren %7 ere osatzen du, eta lanpostuen %20 arrantzarekin lotuta dago oro har.

Euskadiko harrapaketa-sektorearen ontzidia (2005ean EAEn zuena abiapuntuko portua) 299 unitatek osatzen dute. Guztira, haien potentzia 195.000 ZPtik gorakoa da, tonajea 78.000 tonatik gorakoa, eta, adina, batez beste, 13 urtekoa, azken urteotan hasitako modernizazioaren adierazgarri. Baxurako arrantzan eta itsas zabaleko arrantza freskoan aritzeko ontziak, bakailao-ontziak eta atun-ontzi izoztaileak dira, eta 2.800 bat lagun itsasoratzen dituzte guztira.

Oro har, hainbat baldintzatzaille esanguratsuk eragin handia izan dute Euskadiko harrapaketa-sektorearen azkenaldiko bilakaeran: munduko merkataritza liberalizatu izanaren ondorioz, arrainaren batez besteko prezioak behera egin izanak; egonkortasun erlatiboaren araberako printzipiotik ondorioztatzen diren mugen eta zenbait kala tradizionaletako arrantza-baliabideen egoera txarraren ondorioz, gehiago harrapatu ezinak; baliabide berriak ustiatzeko zailtasunek; eta ustiapen-kostuen igoerak, are larriagoa baita erregaien prezioa oso azkar igo dela eta. Horiek guztiek gaur egungo egoera baldintzatzen dute, eta baita langile gaitu gutxi izateak ere; izan ere, itsasoko lanaren ordaina eskasa da besteen aldean. Hartara, harrapaketa-sektoreko merkatuaren ezaugarri nagusia da langile-eskaera txikia duela; beraz, langileek (batik bat, emakumeek, gazteek eta etorkinek) arazo handiak dituzte sektorean lana aurkitzeko.

Euskadiko ontzidiak 200.000 tonatik gora harrapatzen du urtean, 2004an behinik behin. %78 inguru tunidoa da; %15, populazio pelagikoa; eta gainerako %7a, Europako (EBko, Norvegiako eta Svalbardeko) uretako espezie demertsala. Gehiegizko ustiapenaren eta gehiegizko ahalmenaren ondoriozko arazoek eragin ezberdina dute Euskadiko ontzidiak ustiatzen dituen arrantza-gune batzuetan eta besteetan; esate baterako, hegalaburra izan ezik, Euskadiko ontzidiak ustiatzen dituen tunidoak ustiatzeko moduan daude, segurtasun-muga biologikoen barnean betiere, baina ezin da gauza bera esan Bizkaiko Golkoko antxoaz eta legatzaz. Artisau-arrantzako ontzidiak ustiatzen dituen kostako stockek (hala nola, itsaskiek, aingirak eta *Gelidium* algak) interes garbia dute merkataritza aldetik, baina garrantzi ekonomiko erlatibo txikia dute eta haien buruzko jakintza-basea eskasa da; dena dela, ezinbestekoa da haien kudeaketa eta jarraipena zuzena izan dadin ziurtatzea. Arrantza ikuskatzeko lanak Eusko Jaurlaritzako eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko zerbitzuek egiten dituzte, elkarlanean.

Azken urteotan, beheranzko joera sumatu da EAEko arrantza-portuetan deskargatzen den arrain kantitatearen eta erabiltzaileen eta portuetan lan egiten duten ontzien kopuruaren aldetik eta, aldi berean, beste herrialdeetako arrainen inportazioak gora egin du. Arrantza-ontzidia errotik berritu da urteotan, baina arraina eskuztatu eta lehenbizikoz eraldatzeko, arraina sailkatzeko eta abarretarako lehorreko azpiegiturak, ez; Bizkaiko Golkoko beste eskualde batzuetan, ordea, horixe egin dute.

Arraina eraldatzeko industria nabarmen barneratuta dago EAEko kostako lurraldeetan, Euskadiko portuetan tradizio handia izan dela-eta harrapaketan.

Eraldaketa-azpisektoreen artean, arrain-kontserbagintza da gailen. Tradizio eta garrantzi handiko jarduna da eta, nabarmenki, azpisektore nagusia da: sektoreko ekoizpen osoaren eta lanpostu guztien hiru laurden baino gehiago esparru horretakoa da. Garrantzi aldetik, bigarren azpisektorea izoztuak dira, baina askoz ere garrantzi txikiagoa dute eta, azkenik, ketuak ditugu.

Euskadiko industriaren aldean, arraina eraldatzeko industriak garrantzi txikia du, ez baitu osatzen lanean daudenen %1 ere eta ez baitu sortzen balio erantsiaren %1 ere, baina, elikagaigintzaren aldean, izan badu garrantzirik: 2003an, adibidez, elikagaigintzan lan egiten zutenen %17 arraina eraldatzen ziharduen, eta elikagaigintzaren bitartez sortutako balio erantsiaren %14 arraina eraldatuz sortu zen.

Arrantza-produktuak merkaturatzeko sektorea hamaika eragilek eta askotariko eragiketek eratzen dute, eta guztiek helburu bera dute: kontsumitzaileak arrantza-produktuez hornitzea. Hain zuzen ere, handizkako esportatzaileek, merkatu nagusietako handizkariak, txikizkariak, banatzaileak eta, azkenean, kontsumitzaileak osatzen dute.

Arrain freskoaren esparruan, lau joera azaleratzen ari dira: jatetxeetan kontsumitzen den arrain kantitatearen hazkundera, tokiko harrapakinaren eta eskariaren hazkunderaren arteko egokitasunik eza, tokiko eskaintza bere horretan gelditzea eta banaketa-modu modernoek garrantzi handiagoa izatea bide tradizionalen aldean. Joerok azpisektorearen bilakaera baldintzatzen ari dira, zuzeneko eragina baitute banaketa-bideetan eta hornikuntza-iturrietan. Elkartzeko joerari eta lehiatzeko beharrezko masa kritikoari dagokienez, ordea, ahulezia bat dugu: azpisektore honek baxurako eta itsas zabaleko sektoreetatik eta merkaturatze-sektoretik bereiz funtzionatzen du, eta apenas dago haiekin koordinatuta.

Merkatuari dagokionez, behin-behineko datuen arabera, EAEk 517.990.000 euroko elikagaiak esportatu zituen guztira 2005ean, hau da, 311.559 tona. Balioaren arabera, edariak esportatu zituen gehien, eta arraina jarraian. Hain zuzen ere, arrainaren eta arrain-deribatuen esportazioa 76.039.000 eurokoa izan zen 2005ean eta, Europako merkaturan, gehien esportatutako produktua izan zen balioaren arabera.

Kontsumo arloko joerak adierazten du hazkunde handia izan dela jaki prestatu izoztuen eta V. gamako produktu eraldatuen (jateko prest dauden produktu akabatu eta hoztuen) prestakuntzan. Izan ere, Europako joeraren ildoan, kalitatea eta segurtasuna galdu gabe, kontsumitzaileak azkar eta eroso jan nahi dute, gizartearen jarraibide berriak (sukaldaritzan aritzeko denbora gutxiago izatea, otorduak hain egituratuta ez egotea, emakumeek etxetik kanpo lan egitea...) direla eta.

Munduan gero eta arrain gehiago eskatzen dute eta, harrapaketa-arrantzak zailtasunak dituela-eta, akuikultura bihurtu da eskariari erantzuteko aukera nagusia. Akuikultura ez da tradizio handiko jardura izan Euskadiren historian; izan ere, beti izan da lehia handia kostaldea erabiltzeko, kostaldean lur-eskasia dugu, ozeanoaren eta eguraldiaren baldintzak ez dira egokiak, eta espezie gutxi egokitzen dira baldintzotara. Hala ere, akuikulturako ekintzak eta ekimenak abiatu dira azken urte hauetan, eta itsas akuikultura-sektorearen aldeko apustu sendoa egin da.

Arrantza-sektorea gizarteko eta ekonomiaren esparruko atal esanguratsua da oro har, eta, EAEko ekonomiaren esparruan, errentaren zati handi bat landu eta sortzen du. Azken urteotan, ordea, sektoreak ezin du garai batean adina landu harrapaketa-arrantza; horrenbestez, argi eta garbi dago, epe ertainean, garapen iraunkorreko jarduerak dibertsifikatu beharko direla, kostako arrantza-guneetan.

### **Arrantzarako Plan Estrategikoaren oinarrizko estrategiak**

Euskadik tradizio eta esperientzia handia izatea arrantzan, ontzidi modernizatua eta teknologiaz egokiro hornitutakoa edukitzea eta baliabideak eta harrapaketa bera iraunkorrak izan beharri buruz gero eta kontzientzia handiagoa hartzea Euskadiko arrantza-sektorearen indarguneak dira, dudarik gabe; gainera, etorkizunerako ere arrantzaren aldeko apustua egiteko asmo orokor sendoa dugu. Horregatik guztiagatik, badirudi behar bezala finkatuta daudela sektorea lehiakorra eta jarduna bideragarria izatea ziurtatzeko estrategiaren oinarriak. Sektorea indartsu garatzeko baliatu behar ditugu inguruko aukerak eta, tartean, kate osoko aurrerapen teknologikoak, harrapaketa segurtasuna eta erosotasuna, produktuen bereizkuntza eta teknologia-zentroen eta zentro sektorialen (hala nola, AZTIren) babes teknikoa. Ildo berean, iraunkortasunean aurrera eginez, ontzidi iraunkorra izango dugu ingurumen arloan eta alor sozioekonomikoan, eta, are gehiago, baliabide berriak ustiatzeko aukera.

Egoera honetan, halabeharrezkoa da ontzidiari buruzko politikaren helburua izatea arrantzatzeko ahalmena baliabideetara egokitzea, ustiapena iraunkorra izateko moduan, sektore lehiakorra garatzearen esparruan betiere.

Neurri handi batean, Euskadiko ontzidiaren arrantza-ahalmena egokituta dago jadanik harrapa daitezkeen baliabideetara, eta ontzidia funtsezko berrikuntza teknologikoa egiten ari da; dena dela, berrikuntzak jarraitu egin behar du, eta ontzidia lehiakorra izatea ziurtatzeko bitarteko estrategikotzat finkatu. Baliabideak kudeatzeko politikak zorroztera egingo dute, bai oinarri zientifikoak sendotzeko eta bai politikak betearazteko eta kontrolatzeko. Hori gertatzen bada, aurrera egingo dugu arrantza-ahalmena arrantza-baliabideen ekoizpen-ahalmenera egokitzeko helburuan, eta beste helburu bat lortuko dugu, arrantza-sistemako eragile guztiena hain zuzen: arrantza iraunkorra izatea eta ekonomia arloan bideragarriak diren ontzidiek ustiatzea arrantza-guneak, arduraz.

Azken batean, ontzidiari buruzko politikaren xedeak izan behar du arrantza-ahalegina stocken egoerara egokitzea, gehiegizko ahalmen zaharkitua deuseztatuz eta itsas ingurumena babesteko eskakizunetara egokitzuz arrantza; horretarako, itsas ingurumenean ahalik eta eragin txikiena duten teknologiak erabiltzea bultzatu behar da eta, tartean, habitatak eta arriskuan dauden espezieak babestea. Ontzidi moderno, lehiakor eta segurua edukitzeak lehentasunezko helburua izan behar du eta, horretarako, hobekuntzak egin behar dira balio-kate osoan: besteak beste, baliabide-mota gehiago ustiatu behar dira, baliabideak ontzi barruan ustiatzeko prozesuak hobetu eta berriak ikertu behar dira, eta produktuak batera eraldatu eta merkaturatzeko egiturak sendotu behar dira; hartara, zenbat eta arrantza gehiago egin, orduan eta etekin handiagoa lortuko dugula pentsatzeari utziko diogu agian. Azkenik, kostaldearen garapenaren esparruan, helburua ontzidia jardueramota gehiagotatik bizitzea da eta, horregatik, kostako artisau-arrantza mantendu eta hobetzea da asmoa, berrikuntza eta arrantza arduratsua eta beste aukera batzuk baliatzea bultzatuz.

Bestalde, enpresen prestakuntzari esker, sektoreak arrantza-enpresen finantza-kargari aurre egin ahal izango dio, ustiapen-kostuek (erregaiaren kostuak eta abarrek) gora egiteari eta lehenengo salmentan ordaintzen diren prezioak ez igotzeari.

Egoera honetan, ezinbestekoa da itsasoko baliabideak hobeto kudeatzeko estrategia bat, ingurumenaren kudeaketa iraunkorra izan dadin eta, hartara, industria bideragarri eta lehiakorra izan dezagun. Estrategia horren esparruan, besteak beste, sareak eta behatokiak sortu behar dira, datuak bildu eta kudeatzeko eta, haien bitartez, jakintza sortzeko; jakintzari esker, baliabideak eta itsasoko ekosistema batera kudeatuko ditugu, eta kudeaketa iraunkorra izango da, gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik. Halaber, habitatak eta baliabideak kontserbatu, babestu eta lehengoratzeari arduratu behar dugu, eta baliabideen ustiapena eta kostaldeko ekosistemaren beste erabilera bateragarriak izan daitezen ahalegindu, iraunkortasunaren esparruan. Azkenik, baliabide naturalak teknologia eta prozedura berrien bitartez ustiatzea bultzatu behar dugu, eta teknologiek eta prozedurek egokiak izan behar dute ingurumen aldetik, eta bideragarriak ekonomia aldetik.

Arrantza oro har ikuskatzeko eredu bat ezarri beharra dago, ikuskatze-lana askoz eraginkorragoa izatea ekarriko bailuke. Hori dela-eta, funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzako Arrantza Ikuskatzeko Zerbitzuak eskumen osoa izatea, arrantza oro har, arrainak eta itsaskiak harrapatzen dituztenetik produktuak merkaturatzen dituzten arte ikuskatzeko sistema ezar dezan.

Akuikultura-sektoreari buruzko AMIA analisiak adierazten duenez, sektoreak gora egiteko muga nagusiak dira kostako ingurunearen beraren ezaugarriak, sektorearen garapen eskasa eta beste ekoizleekiko lehia handia, eta sektorearen indargune eta aukera nagusiak, berriz, sektorearen sendotasun orokorra, itsas inguruneari buruzko jakintza sakona eta produktu eta ikuspegi berriak lantzeko aukera.

Horregatik guztiatik, Euskadin akuikultura-sektorea garatzearen aldeko apustu argia egin dugu. Estrategiaren helburua da itsas akuikulturaren ekoizpena handitzea, genetika, osasuna, elikadura eta ingurumena hobetuz, baita espezie berriak ekoiztu eta jakintza teknikoak sustatzea ere. Akuikultura-instalazioek itsas ingurumenean duten eragina txikiagotuz gero, jarduna iraunkorra izango da ingurumen aldetik.

Giza kapitalaren inguruko ardatzaren esparruan esku hartzeko ildo estrategikoen xedea arrisku ekonomikoa txikitzea eta sektorearen irudia eta pertsonen prestakuntza hobetzea da. Eraldaketa-eta merkaturatze-sektoreetan ere hartu behar da neurririk prestakuntzari dagokionez, sektoreen egoera bera dela-eta, baita akuikultura-sektorean ere; izan ere, enpresa-ekimena eta enpresak sortzea ildo estrategikoa da akuikultura-sektorean, sektorea bera bultzatzeko eta lan eskaintzak sortzeko.

Merkatuaren joerek adierazten dute kontsumitzaileek produktu seguru, eroso eta freskoak nahi dituztela eta, hortaz, balio-kate osoa bideratu behar da eskakizunoi erantzutera eta askotariko produktuak eskaintzera. Horretarako, balioa erantsi behar da banaketaren hasieran, baita lonjetan ere, arraina eskuztatu eta prestatzeko moduen bitartez, enkanterekin eta Internet bidez erosteko aukeraren bitartez eta abarren bitartez. Bestalde, sektorea oso zatikatuta eta sakabanatuta dago eta, horregatik, merkatuaren mehatxuei aurre egiteko, komeni izango litzateke balio-katearen maila guztiak hobeto bateratzea eta, masa kritikoa osatze aldera, enpresa gehiago biltzea.

Erronka horiei guztiei aurre egiteko, ezinbestekoa da, alderdi guztiak batera merkatura bideratzea ez ezik, portuak arraina eskuztatzeko, biltegitatzeko, eraldatzeko, kontserbatzeko... beharrezko azpiegituz hornitzea; hartara, kontsumitzaileen gero eta eskakizun estuagoei erantzun dakieke eta, aldi berean, gure sektorearen lehiakortasuna handiagoa da beste herrialdeetako inportazioen eta inguruko erkidegoetako ontzidien aldean.

Arrantza-produktuen gaur egungo fabrikazio- eta kontsumo-joerei begiratuz gero, bistan gelditzen da Euskadiko eraldaketa-sektorea ez datorrela guztiz bat joerekin; hau da, arraina eraldatzeko Euskadiko sektorea garatu eta egokitu egin behar da, inguruko eskakizunei eta etorkizuneko joerei erantzuteko. Hortaz, hauek dira eraldaketa-sektoreko estrategiak zehazteko ardatz nagusiak: kontsumo-joerei erantzutea, enpresak egokiro kudeatzea, merkaturatze-sistema berriak sortzea eta produktuak eta prozesuak berritzea.

Merkaturatze-sektorearen egungo funtzionamendua errotik aldatu behar da, sektoreak elkartzeko eta sektore guztiak koordinatu eta batera kudeatzeko; hartara, merkatuaren eskaintza eta eskaria gehiago kontrola daitezke eta, aldi berean, eragina izan daiteke merkatuko prezioetan. Hortaz, merkaturatze-sektoreko ekintzen helburua da arrantza-produktuen eskaintza hobetzea, higie eta segurtasun arloko eskakizun berriak egokitzea eta gehiago betetzea, eta baliabide teknikoak hobetzea. Finkatutako helburu estrategikoak, azpisektoreen (baxurako eta itsas zabaleko arrantzaileen eta, merkaturatzaileen) arteko koordinazioa hobetzeaz gain, produktuak merkaturatzeko azpiegitura lehiakorrek sortzea eta higie eta segurtasun arloko eskakizun berriak gehiago betetzea ere badira.

Merkaturatze eta sustapen arloko ekintzek bi helburu izan behar dituzte: alde batetik, Euskadiko biztanleriak arrain gehiago kontsumitzea eta, beste alde batetik, arrantza-produktuen esportazioa haztea eta produktuak saltzeko merkatu berriak zabaltea.

Neurri handi batean arrantzatik bizi diren udalerrien egungo egoeraren analisisan oinarrituta, beste helburu estrategiko bat jarri dugu: kostako eskualdeak gutxiago egotea harrapaketa-arrantzaren mendean. Horretarako, egitura sozioekonomikoa askotariko bilakatu behar da eta, horretarako, era berean, gizarteak eta ekonomiak oparoak izaten jarrai dezaten ahalegindu behar da, tokiko eta nazioarteko sareak sortzen, arrantza-herrien kudeaketa orokor eta iraunkorra sustatzen eta kulturagintza eta prestakuntza bultzatzen.

EAEk zer indargunetan eta aukeratan esku har dezakeen jakitea giltzarria da neurri handi batean arrantzatik bizi diren udalerrien etorkizun sozioekonomikoa garatzeko, eta, hain zuzen ere, hauek dira indarguneok eta aukerok: arrantzaren inguruko kultura handia; gure arte-ondarearen eta gure baliabide naturalen erakargarritasuna; akuikultura-sektorearen eta turismo ekologikoaren garapena; tokiko, Europako eta nazioarteko sareetan parte hartuz, ezaguera eta esperientzia elkarri jakinaraztea...

Aukerok baliatu eta arrakasta izateko, gure ahulezien eta indarguneeen berri jakin behar dugu, esperientziaren bitartez, eta neurri handi batean arrantzatik bizi diren eskualdeetako garapen sozioekonomikoan esku hartzen duten eragileek oso prestatuta egon behar dute. Nolanahi ere, argi eta arbi izan behar dugu badela garapen handiagoa behar duen azpiegiturarik, akuikultura-sektorea ez dagoela garatuta apenas, eta harrapaketa-arrantzaren mendean gaudela hein handi batean.